2020 • URTARRILA

# aballarri

## EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

## EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## LA DIRECCIÓN / ZUZENDARITZA

*Afrontamos otro curso con entusiasmo e ilusión. En Egape, la Ikastola pública de los/as urnietarras, creada para el pueblo y comprometida con él, seguimos fortaleciendo el Proyecto Educativo entre 2-16 años, promoviendo las metodologías activas y diseñando nuestros propios proyectos entre otras cosas. Además, impulsamos el uso del euskara utilizando todo tipo de recursos. Nuestro sueño desde hace muchos años es el nuevo edificio y para ello es imprescindible la implicación total del ayuntamiento para después tomar nosotro/as el testigo. Seguiremos trabajando para Urnieta y los/as urnietarras.*

***Juan Luis Alkorta Abarrategi:***
*director de HH-LH, Txarama, 36 años en Egape.*
***Koro Berasategi Iriondo:***
*jefa de estudios de HH-LH, Urnieta, 35 años en Egape.*
***Edurne Arzelus Aramendi:***
*secretaria de HH-LH, Bergara, 25 años en Egape.*
***Amaia Amutxastegi Santo Tomas:***
*directora de DBH, Andoain, 32 años en Egape.*
***Nekane Legarreta Miner:***
*efa de estudios de DBH, Hernani, 33 años en Egape.*
***Miriam Larrinaga Satrustegi:***
*secretaria de DBH, Tolosa, 6 años en Egape.*

Beste urte batez Egape Ikastolako zuzendaritza taldeek ikasturteko erronka berriei gogotsu eta ilusioz beterik heldu diegu. Egape Ikastolan, urnietarron Ikastola Publikoan, herritik sortua eta herriarekin konprometitua, 2-16 urte arteko Hezkuntza Proiektua sendotzen dihardugu, metodologia aktiboak areagotzen eta proiektu propioak diseinatzen, besteak beste. Bestalde, euskararen erabileraren inguruko kezka ere badugu eta erronka honi aurre egiteko baliabide ezberdinak martxan jarri ditugu. Aspaldiko ametsa, eraikin berria! eta honetarako ezinbestekoa dugu Udalak bere esku dagoen guztia betetzea ondoren txanda guk hartzeko. Herrira irekiak gaudenez, Urnieta eta urnietarrentzat lanean jarraituko dugu.

**Juan Luis Alkorta Abarrategi:**
HH-LHko zuzendaria, txaramatarra, 36 urte Egapen.
**Koro Berasategi Iriondo:**
HH-LHko ikasketa burua, urnietarra, 35 urte Egapen.
**Edurne Arzelus Aramendi:**
HH-LHko idazkaria, bergararra, 25 urte Egapen.
**Amaia Amutxastegi Santo Tomas:**
DBHko zuzendaria, andoaindarra, 32 urte Egapen.
**Nekane Legarreta Miner:**
DBHko ikasketa burua, hernaniarra, 33 urte Egapen.
**Miriam Larrinaga Satrustegi:**
DBHko idazkaria, tolosarra, 6 urte Egapen.



# MUGIMENDU AUTONOMOA HAUR HEZKUNTZAN

Ikastolan azken urteotan ematen ari den eraldaketa metodologikoak maila guztietan eragina badu ere, Haur Hezkuntzan ezarri dugun Mugimendu Autonomoa aipagarrienetako bat da.

Metodologia honek konpetentzien garapena ahalbidetzen du, aniztasuna eta erritmo desberdinak errespetatzen ditu. Ikasleari espazioa aukeratzeko askatasuna ematen dio honen aprobetxamendu hobea eginez eta harremanak sendotzeko aukerak zabaltzen dizkio, irakasleari, berriz, ebaluazioa aberatsagoa egiteko aukera ematen dio.

Hau dela eta, mugimendu autonomoa ahalbidetzeko maila bakoitzean hainbat gune prestatu ditugu geletan eta horien bidez esperimentazioa eta manipulazioa indartzen dira. Haurrek beraien interesen arabera, aukeratuko dute zer egin, nola eta norekin.

Geletan dauden guneak:
-Ametsen mundua.
-Sinbolikoaren gunea.
-Artearen gunea.
-Eraikuntzaren gunea.
-Matematika eta zientziaren gunea.
-Mundu txikiaren gunea

# MOVIMIENTO AUTÓNOMO EN EDUCACIÓN INFANTIL

*Entre los cambios metodológicos que se están dando en la ikastola durante estos últimos cursos, uno de los más evidentes es el Movimiento Autónomo que desde el curso pasado se ha establecido en Educación Infantil.*

*Este tipo de trabajo fomenta el desarrollo de las competencias, los espacios son más abiertos y amplios y se aprovechan mejor. Los/as alumnos/as tienen libertad de elección y esta forma de trabajar favorece la relación con otros niños y niñas, así como con otros adultos. También se fomenta el desarrollo de la autonomía y posibilita una evaluación más completa del alumnado.*

*En las aulas de Infantil se han habilitado espacios que ayudan al alumnado a reforzar la experimentación y la manipulación y los niños y niñas elegirán, de acuerdo con sus intereses, qué hacer, cómo y con quién, dentro de un orden.*

*Aulas y espacios:*
*-El mundo de los sueños.*
*-Espacio del juego simbólico.*
*-Espacio del arte.*
*-Espacio de la construcción.*
*-Espacio para las matemáticas y la ciencia.*
*-Espacio del pequeño mundo.*

















# EUSLIDERRAK: TALLER PARA REAFIRMARNOS TAL COMO SOMOS

*Desde los inicios, la ikastola Egape ha participado de forma activa en la normalización del uso del euskara hasta llegar a convertirse, en la actualidad, en un referente dentro del pueblo de Urnieta. Un objetivo prioritario es el refuerzo en el conocimiento del euskara. Para ello hemos puesto en marcha, en colaboración con la Coordinadora de Euskaldunización y Alfabetización (AEK) y el Ayuntamiento de Urnieta, el taller Eusliderrak dirigido a los alumnos de 3º de DBH. Entre los objetivos este taller busca un cambio en la actitud del alumnado sensibilizándolo en la importancia de la utilización de todas las lenguas y, en concreto, en promover el uso del euskara en las comunicaciones informales diarias. VIVAMOS EN EUSKARA!!!*

# EUSLIDERRAK: GARENA IZATEKO TAILERRA

Ikastolan ardatz nagusitzat beti izan dugu euskara indartzea: ezagutzatik abiatu eta erabilerara iristea. Hori dela eta, AEK eta Urnietako Udalaren laguntzarekin, Egape Ikastolan Eusliderrak tailerra martxan jarri dugu. Tailer honen xedeak, hizkuntzekiko jarrerak lantzea, eraldaketa sustatzea, portaera berriak sortzea eta hizkuntza-lidergoa indartzea dira, besteak beste.

Beraz, urriaren amaieran martxan jarri genuen tailerra DBH 3. mailako ikasleekin sentiberatuz, hizkuntzen garrantziaz jabetuz eta haien arteko euskararen erabilera informala sustatuz. Bi urteko proiektua da eta emaitza aberatsak jasoko ditugulakoan gaude. EUSKARAZ BIZI!!!







# COLABORANDO CON LA HAURRESKOLA

*La Haurreskola cuenta ya con una larga trayectoria en el pueblo y es cada vez más estrecha la relación que la une a la ikastola debido a que los niños y niñas que acuden a la Haurreskola son los/as futuros/as alumnos/as de Egape y además comparten espacios físicos y algunas actividades que se llevan a cabo a lo largo del curso.*

*Mediante el juego y el movimiento libre los/as niños/as van descubriendo su mundo y su entorno. Para ello se les ofrece materiales diversos y adecuados para que vayan experimentando y analizando sus propios logros respetando los ritmos de cada niño/a. Tenemos en cuenta las necesidades de cada familia y uno de nuestros objetivos es lograr una relación de confianza y cercanía.*

***Datos de contacto:***
*943334036 y urnieta.urnieta@haurreskolak.eus*

# HAURRESKOLAREKIN ELKARLANEAN

Haurreskolak ibilbide luzea du herrian eta Egape ikastolarekin duen harremana geroz eta estuagoa da, alde batetik, Haurreskolako haurrak ikastolako etorkizuneko ikasleak direlako, eta bestetik, hainbat espazio eta jarduera partekatzen ditugulako.

Bertan haurrek jolasa eta mugimendu librearen bitartez bere mundua eta ingurunea aurkitzen eta ezagutzen joaten dira. Horretarako egokiak diren material ezberdinak eskaintzen zaizkie, beraiekin esperimentatzen joateko eta aztertzeko, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz. Haureskolan familiekin elkarlanean aritzen gara.

**Kontaktuko datuak:**
943334036 eta urnieta.urnieta@haurreskolak.eus









# MATRIKULA ZABALIK!

## Matrícula abierta

# EGAPE

Urnietarron ikastola publikoa

**27** URTARRILA ENERO »

» **7** OTSAILA FEBRERO

**ATE IREKIAK ETA BILERA INFORMATIBOA**

**PUERTAS ABIERTAS Y REUNIÓN INFORMATIVA**

2 URTE / 2 AÑOS
Urtarrilak 22 de enero
Etxeberri Plaza, 17:00 h.

DBH / ESO
Urtarrilak 16 de enero
Azkorte, 17:00 h.



Eskola Jasangarria Ziurtagiria

KALITATEA HEZKUNTZAN

EGAPE IKASTOLA


Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egapebhi.eus